



HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HEZKUNTZA PRINTZIBIOAK

1. Garapena prozesu pertsonala da, norberaren ezaugarri zein egoerak eta inguruneak baldintzatua.
2. Guztiok ezberdinak gara. Haur bakoitzak bere erritmoa du eta errespetatua izango da.
3. Egunerokotasunean hezkidetzan heziko da. Aurreiritziak eta estereotipo baztertzailak kanpo geldituko dira.
4. Ez dugu dena modu berean eta aldi berean barneratzen. Garapen intelektualak, afektiboak eta sozialak prozesu horretan eragina izango du. Haurren garapena globala da eta alderdi guztiak batera eta elkarri lotuak eraikitzen dira.
5. Haurra, menpekotasun handia badu ere, gaitasunak dituen izaki aktiboa da.
6. Bizitzako esperientziak eta horiek sortzen dituzten emozioak garapenaren oinarri dira eta pertsonaren osotasunari eragiten diote: arlo afektiboari, harremanei eta ezagutzei.
7. Hazteko eta ikasteko onarpena, segurtasuna, konfiantza eta egonkortasuna behar dira.
8. Erabiliko den hizkuntza euskara izango da, beti ere, haurren eta familien hizkuntza onartuz eta errespetatuz.
9. Hezitzaileen esku-hartzea koherentea izango da, haurren ongizatea lehenetsiz:
 - Hezitzaile taldearen esku-hartzea koherentea izateko adostua eta bateratua izango da.
 - Hezitzaile taldeak familiekin errespetuzko komunikazio eta harreman bideak eraikiko ditu.
10. Hezitzailearen rola funtsezkoa da. Behatuz eta entzunez, haur bakoitzaren ezagutzan sakonduko du hezitzaileak, haurrak ingurune fisikoarekiko eta sozialarekiko izan ditzakeen harremanak zainduz.
11. Hezkuntza proposamenak irizpide psikopedagogikoetan oinarrituko dira.



12. Hezkuntza proposamenek, haurrek mundua ikertzeko, ezagutzeko eta ulertzeko duten premia nahiz haur bakoitzak dituen inizatiba eta interesak errespetatuko dituzte.
13. Haurren garapen globala bermatzeko, arlo motorrean nahiz intelektualean hazteko, askatasunez mugitzeko nahiz manipulaziorako eta esperimenezko proposamen aberatsak eta doituak eskaini behar zaizkio.
14. Hezkuntza-proposamenak iraunkorrak, jarraiak, anitzak eta haurren garapen uneari egokituak izango dira.